

29. GARAI BATEKO IRUÑEA

Lehenago ez, lehenago hau zegoen arrunt miserable, lurrak (?) arte. Es que hemen ez bazen obra bat egiten! Eta gero zer egin da? Gero zer egin da nire denboran? Nik ezagutu dut Iruñea... zaharra, zaharra, Iruñea zaharra bakarrik. Gaztelu plazatik ateratzen baziren, adiós! Amaia kalera eta zezen plaza eta han... zegoen hori, El Irati. Trena etortzen zen eta gero Valentzia pasealekuan barna bueltan jausten zen Arrotxapeara. Eta Arrotxapea, han finitzen zen. Eta lehenago ematen omen zuen, ni Iruñean hasi baino lehen, Gaztelu plazan buelta ematen zuen tranbiak edo horrek. Eta gero Valentzia pasealekuan barna, gero Gaztelu plazara ez zen sartzen.

Hori, Karlos Hirugarrena, hor zegoen bada, hori... Teatro... Teatro Gaiarre edo hori. Han, erdi-erdian. Nik ezagutu dut, handik botatzen zuten, sanferminetan botatzen zuten hori... zinea, balkoi... balkoi batetatik Gaztelu plazara. Debalde, sanferminetan.

Gero, ni sanferminetan... mucho... asko egon nintzen. Arreba hemen, ezkondua Iruñera. Hil zen agudo samar. Sarreran, bi arreba genituen eta, zaharrena ezkondu zen Iruñera. Eta gero (?), ni Iruñera hasi nintzen joaten, igual hamar urteetarako. Eta han pasatzen nituen igual zortzi-hamar egun, Iruñean. Eta Iruñea, ikasi nuen nik... bueno! Baina Iruñea zen borobiltxo bat bertzerik! Kilometro bat, kilometro bat. Hori... Donibane auzoa eta horiek denak garia izat... egoten zen. Hor ez zen etxerik. Algún... etxeren bat hola soltea. Horregatik, harresi bat, badakizu? harresia orain harrapatu dituzte fosa horiek ere, pues auzo hori dena... gehiago... handik fuera ez zen ni hasi nitzelarik, ja ere.